

# EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor  
Esteban Bravo  
atsegin dut   


## IDOIA SAGASTIZABAL Bermeon, 2023ko uztailaren 16an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
*El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.*

Eguerdi on Bermeo, eguerdi on Bizkaia!

Gaur ez naz herri zoragarri honetara etorri datuak emotera. Ezta be, ez deutsuet esango zer egin dauan Euskal Taldeak Madrilen eta zer egingo dogun datozen lau urteetan. Hori, beste egun batean tokatuko da. Gaur, anekdota bat kontauko deutsuet.

Cuando fui a Madrid a representar al Partido, no sabía qué áreas iba a llevar. Evidentemente, me tocaron aquéllas que dejaba el ahora sailburu Azpiazu, y uno de sus ámbitos era 'Energía'.

Apenas aterrizada, me dicen que tenía que ir a la ponencia del Consejo de Seguridad Nuclear. Ene! Imaginaros mi cara, porque no sabía ni lo que era. Me puse a buscar en internet, llamé a gente del Partido que me podía ayudar, leí (mucho)... Básicamente, me busqué la vida y fui (ahora que no me escuchan los jefes) con los deberes más o menos hechos.

Cuando llegué allí, una persona de otro grupo me preguntó que qué tal lo llevaba, que si sabía de 'esto'. Que él venía con el otro portavoz de su grupo para ir aprendiendo... Y, antes de que pudiera responder, su portavoz le dijo: "Esta es del PNV. El PNV trabaja todos los temas, saben de lo que hablan. Estos no dan puntada sin hilo y van a lo suyo, a sus cosas del País Vasco".

Este es el modelo PNV. ¡Trabajo, compromiso, rumbo y una voz propia y bien definida!

Joko bat proposatuten deutsuet: nik galdera batzuk egingo deutsuedaz eta zuek zeuen buruari erantzungo deutsazue. Eta amaitzen danean, batera eta ozen erantzungo dozue, ados?

Hasiko gara! Itxi begiak eta begiratu Bizkaia eta Euskadi zelan dagozan. Lurralde moderno batean bizi gara? Aurrera doan elkargoa dugu? Kalidatezko zerbitzu publikoak doguz? Ondo bizi gara? Badoguz Bizkaia eta Euskadi sozial eta solidarioak?

Zein da erantzuna? BAI.

Eta, badakizue nor egon dan hor hori lortuteko erabagiak hartzen? Erabagiak, askotan, oso gatzak izanik be. Nortzuk aritu dira negoziatuten Euskadik zeozer jokoan eukon lekuetan, baita herrialde honetako unerik gatzenetan be? Nork egin dauz 45 urte baino gehiago autogobernua defendatuten? Nork egin dau errespetuz eta emondako berba betez?

Zein da erantzuna? Euzko Alderdi Jeltzalea! Hori da!

Euzko Alderdi Jeltzalea gara. Harrokeri barik, baina harrotasunez esan dagigun. Gu gara gaur egun ditugun Bizkaia eta Euskadi izatea eragin dauen Alderdiaren oraina eta etorkizuna. Herri honek gure eguneko minutu guzti-guztiak merezi dauz. Eta, lehen aitatu deusuedan bozeramaile horrek esan lez, ez dogu haririk bako puntadarik emongo. Prest gagoz euskal herritarren alde arraun egiteko!

Ilusinoari branka jarri eta atzerakadari ziboga egingo deusagu. Izan be, Euzko Alderdi Jeltzalea gara. Bermeo, Bizkaia eta Euskadirako beti hor egon diran emakumeak eta gizonak gara.

- Ontzia badaukagu: Euzko Alderdi Jeltzalea
- Norabidea: Euskal Agenda
- Gidatuten gaituen iparrorratza: Euskadi eta euskal herritarrak
- Tripulazinoa: Euskal Taldeko emakume eta gizonak
- Eta kapitainik onena: Aitor Esteban Bravo

Badakizu! Badakizue! Euskadi 'abante makine guztixen' ipinteko: uztailaren 23an, aukera bakarra: Euzko Alderdi Jeltzalea.

Gora Euzkadi askatuta!!